# MANIFIESTO

## 26 ABRIL: DIA INTERNACIONAL DE LA VISIBILIDAD LÉSBICA

Tras décadas de lucha por lograr mayores cuotas de igualdad social con independencia de la preferencia sexual o género, son aún muchos los retos que quedan por alcanzar, entre ellos, conseguir una mayor representación social del lesbianismo poniendo así fin a la falta de visibilidad pública de las lesbianas que aún persiste en nuestra sociedad, la representación social de la homosexualidad sigue siendo fundamentalmente masculina.

La visibilidad lésbica es sobre todo una cuestión de reconocimiento, de legitimidad social y de que se den las condiciones para el libre ejercicio de los derechos,unos derechos elementalmente democráticos que competen, en consecuencia, a todas las personas que vivimos en esta sociedad. Queremos recordar que el derecho a la expresión sexual emocional forma parte de los derechos sexuales, reconocidos como parte de los DDHH fundamentales.

Sin visibilidad no es posible vivir en plenitud el lesbianismo. Resulta evidente que mientras haya personas que vean necesario ocultarse por miedo, vergüenza o por la culpa que les genera su sexualidad, no será posible una sociedad diversa y plural.

Los agentes sociales en su conjunto, tenemos la oportunidad y el deber de construir una sociedad más respetuosa, justa e integradora a través de la asunción en nuestras agendas de trabajo de un compromiso explícito con las lesbianas y con el fomento de un contexto que facilite su visibilidad.

Por todo ello queremos animar a la sociedad en general, y a todos los agentes implicados, a asumir un compromiso a este nivel trabajando cuestiones relativas a la diversidad sexual y de género y creando condiciones idóneas en todos los ámbitos de nuestra sociedad para que las lesbianas se visibilicen.

*Bilbao, 26 abril 2018*

# ADIERAZPENA

## APIRILAK 26: LESBIANEN IKUSGAITASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Hamarkadetakoa da berdintasun soziala gehiago zabaltzeko egindako borroka, eta helburua, norberaren sexu nahiz genero joerari begiratuko ez dion gizarte bat, baina hala ere, asko dira oraindik irabazteko ditugun erronkak ere, haietako bat, lesbianismoaren agerpen soziala ageriagokoa izatea, lesbianek aitortu ez zaien ikusgaitasun publikoa eskuratzea, homosexualitatea bera ere gizonezko kontua baita oraindik gizartearen begietara.

Ez da gauza erraza ikusgaitasuna, esanahi sozialez kargatutako egintza bat da, non eta testuinguru sexista eta aurreiritzietara makurtu batean azaleratu behar duena. Oztopo gaitza da hori, eragozten diona norbanakoari gizarte-baliabideak beste herritarren pare erabiltzea, gizakia ikusgai agertzeko beldurrez dabilenean uko egiten baitie bere-bereak dituen eskubideei. Eta, hala, lesbiana asko kaltedun suertatzen dira, bere aukera ederki ordainduta, ezin dituztelarik baliatu urte askoko ahaleginez eskuratutako eskubide juridiko eta sozialak, batzuetan etsi egiteraino ere.

Lesbianen ikusgaitasuna, hartara, aitortu egin behar zaien zerbait da, ezer izatekotan: legitimotasun sozialez ari gara, oinarrizko eskubide demokratikoez, oinarrizkoak izateagatik gizarteko norbanako ororenak diren eskubideez. Gogora ekarri nahi dugu sexuaren adierazpen emozionala eskubide sexualetako bat dela, eta, arrazoi beragatik, funtsezko Giza Eskubideetako bat.

Ez dago inork lesbianismoa bere osoan bizitzerik ezin badu ikusgai jokatu. Bistan da gizaki bat ezkutuka ibiltzen bada, beldurrez edo lotsez dagoelako, edo bere sexualitateak errua sentiarazten diolako, gizarte hori ez dela ez askotarikoa ez orotarra.

Gizarte eragileontzat, eginbeharra bezainbeste, aukera da gizarte errespetuzkoago, bidezkoago eta harkorrago bat eraikitzea, eta, hala izan dadin, txertatu behar dugu gure zereginen agendan konpromisorik erabatekoena lesbianengana, haien ikusgaitasuna erraztuko duen testuingurua sustatzeko ahaleginduz

Esandako guztiagatik dei egiten die, bai gizarteari berari bai alorreko gizarte-eragileei, beren egin dezaten konpromiso hori, sexu- eta genero-aniztasunaren adierazpen diren gaiak jorratuzeta lesbianak ikusgai agertzeko moduko giroa bultzatuz gizarte-eremu guztietan.

*Bilbon, 2018ko apiliraren 26a*